

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren irakaslea Ekoizpen Ingeniaritzako Nazioarteko akademiako (CIRP) kide

2009/09/18

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren Mekanika eta Ekoizpen Industrial sailean irakaslea den Pedro J. Arrazola Ekoizpen Ingeniaritzako Nazioarteko Akademiako (CIRP) kide izendatu dute Bostonen, abuztuaren 23 eta 29an erakunde honek izan zuen batzar nagusian. Akademia hau diseinu, fabrikazio eta produkzio arloetan ikerketa sustatzen duen mundu mailako erakunderik garrantzitsuen da.

Arrazolak duen esperientzia zabala eta ikerketa eta berrikuntza arloetan lortu dituen emaitza bikainengatik hautatu dute. Akademia, 44 herrialde industrialetako 630 kide inguruz osatuta dago, zeintzuk hainbat kategorietan banatzen diren (fellow, elkarteko kide....). Akademiaren xedea unibertsitate eta industriaren artean ikerketa sustatzeko goi mailako nazioarteko sare bat garatzea da ekonomiaren garapena eta gizartearen ongizatea lortzen laguntzeko. (<http://www.cirp.net/>)

Pedro J. Arrazolak 1990etik irakasle lanean dihardu fabrikazio prozesuekin lotutako ikasgaiak ematen. Era berean, errendimendu handiko mekanizazioaren ikerketa lerroaren koordinatzailea da eta 40 pertsona baino gehiagoko lantalde bat lideratzen du. Lantalde honek honako gai hauek jorratzen ditu: mikromekanizazioa, artezketa, abiadura handiko mekanizazioa, txirbilaren osaketa prozesua eta modelizazioa, mekanizagarritasuna, mekanizazio adimenduna, biomekanizazioa edo knowledge base engineering-a. Lantaldearen helburua ikerketa aplikatua egitea da, oinarritzko ikerketa bideratu batetik hasiz produktu berri eta enpresa berriak sortzeko.

Arrazolaren ikerketa lan nagusiak mekanizazio prozesuaren azterketan zentratu dira. Txirbilaren osaketa prozesua aztertzeko sistema esperimenteral baten garapena eta elementu finituak mekanizatzeke eragiketen ereduak lideratu du.

Lan hauen ondorioz, 50 artikulua baino gehiago argitaratu dira aldizkari eta kongresutan eta zulaketetako tenperaturak neurtzeko patente bat lortu du. 7 tesi zuzendu ditu eta mekanizazioarekin lotutako hainbat kongresuetako batzorde zientifikotan parte hartu du. Horietatik aipagarriena, joan zen maiatzean, Donostian, egin zen mekanizazio prozesuen modelizazioari buruzko CIRPen 12. konferentzia izan zen (<http://www.mondragon.edu/12cirpcmml/>).

Izendapen honekin Mondragon Unibertsitatea elkarteko bi kide dituen estatu mailako lehena da (Pedro J. Arrazola eta Ivan Gallego) eta Europan ere lehenetarikoa da. Guzti honekin, azken 10 urteetan errendimendu altuko mekanizazioaren ikerketa taldeak egindako lorpenak CIRPeke aintzat hartu ditu.

